


Hacia la reconciliación

Baketik ha creado esta sección en su videoteca, con fines exclusivamente educativos y no comerciales, que incluye películas y documentales que promuevan la reflexión sobre la paz y la convivencia en el caso vasco.



Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido para que puedan orientarnos en el camino hacia la reconciliación.



Berradiskidetzea lantzen
Hacia la reconciliación

LASA ETA ZABALA

Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Lasa eta Zabala.

AÑO: 2014.

DURACIÓN: 107 min.

PAÍS: España.

DIRECCIÓN: Pablo Malo.

REPARTO: Unax Ugalde, Francesc Orella, Oriol Vila, Jon Anza, Cristian Merchan, Ricard Sales, Javier Mora, Iñaki Ardanaz, Pep Tosar, Aitor Mazo, Josean Bengoetxea, Iban Garate, Iñigo Gastesi, Iñaki Rekarte, Sara Cózar, Pedro Morales..

PRODUCCIÓN: Abra Producciones / ETB / Eusko Jauriaritza / ICAA.

Sinopsis

Sin ceñirse fielmente a los hechos históricos, la película relata el caso de Lasa y Zabala, dos presuntos miembros de ETA huidos al País Vasco francés, que en 1983 fueron secuestrados, torturados y asesinados por miembros de la Guardia Civil en uno de los episodios más graves de la «guerra sucia» en Euskadi. Sus cuerpos no fueron identificados hasta doce años después. Comenzó entonces un proceso judicial para intentar llevar a los responsables de aquellos hechos ante la justicia.

Temática

Terrorismo de Estado, impunidad, justicia o venganza

Terrorismo de Estado. La película muestra las vulneraciones de derechos humanos perpetradas por personas que obedecían órdenes de instancias del Estado en el marco de una estrategia contra ETA.

Impunidad. A las dificultades para llevar a los responsables del crimen ante la justicia se añade el hecho de que las personas condenadas a largas penas de prisión no tardaron en salir a la calle.

Justicia o venganza. La película plantea el debate sobre si debe buscarse justicia o venganza. Lo hace, además, tanto al referirse a la lucha contra el terrorismo, como a la persecución de los crímenes de Estado.

Cuestionario de preguntas previas a la película

· Sobre el terrorismo de Estado: El caso Lasa y Zabala fue una de las primeras acciones de los GAL, unas siglas que luego se harían muy conocidas. ¿Qué sabes de los GAL?

· Sobre la impunidad: ¿Crees que la tortura pueden estar justificada en algún caso?

· Sobre la justicia o venganza: Una de las principales denuncias de las víctimas del terrorismo de Estado es que no se ha hecho justicia con ellas. ¿Crees que existen diferentes varas de medir las conculcaciones de derechos humanos?

Cuestionario de preguntas después de la película

· La película muestra cómo alguno de los implicados, en particular el general Rodríguez Galindo, se considera a sí mismo un leal servidor a su país. ¿Cuál es tu opinión? ¿Pueden acciones de este tipo hacer alguna contribución a un país? ¿Qué opinas de la lealtad a una causa o un grupo, por encima del deseo de justicia? ¿Percibes ese tipo de lealtades en tu entorno?

· La película concluye con un fuerte contraste entre las penas de cárcel que la justicia impuso a los implicados en los hechos y el breve tiempo que finalmente pasaron en prisión. ¿Por qué crees que ocurre esto? ¿Qué crees que significa esto en una sociedad democrática? ¿Qué significaría para ti hacer justicia en este caso?

· ¿Qué sentimiento dejan en ti las imágenes de tortura? ¿Cómo ven los torturadores a sus víctimas? ¿Crees que la «guerra sucia» sirve para justificar o atenuar en algún sentido lo que ETA hizo?




LASA ETA ZABALA

baketik | 943-251005
www.baketik.org

Berradiskidetzea lantzen

Baketik-ek euskal kasuan bakea eta berradiskidetzaren inguruko hausnarketa sustatzeko pelikulak eta dokumentalak barne hartzen dituen atal hau sortu du bere bideotekan, helburu soilik hezitzaile eta ez-komertzialekin.



Pelikula bakoitzak honakoa bezalako gida didaktiko labur bat dakar berekin. Bere helburua pelikulen edukien inguruko azterketa eta hausnarketa erraztea da, berradiskidetzarako bidean orientatzen laguntzeko.



Berradiskidetzea lantzen Hacia la reconciliación

LASA ETA ZABALA

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Lasa eta Zabala.

URTEA: 2014.

IRAUPENA: 107 min.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Pablo Malo.

AKTORE-ZERRENDA: Unax Ugalde, Francesc Orella, Oriol Vila, Jon Anza, Cristian Merchan, Ricard Sales, Javier Mora, Iñaki Ardanaz, Pep Tosar, Aitor Mazo, Josean Bengoetxea, Iban Garate, Iñigo Gastesi, Iñaki Rekarte, Sara Cózar, Pedro Morales.

EKOIZPEN-ETXEA: Abra Producciones / ETB / Eusko Jaurlaritza / ICAA.

Laburpena

Gertakari historikoei zorrotz lotu gabe, filmak Lasa eta Zabalaren kasua kontatzen digu. Ustezko bi ETAkideek Iparraldera ihes egin zuten, eta 1983an Guardia Zibilak bahitu, torturatu eta hil egin zituen. Euskadin "gerra zikinaren" gertakari larrietako bat izan zen. Gorpuak ez ziren identifikatu hamabi urte pasa ziren arte. Orduan, prozesu judizial bat hasi zen, gertakari haien erantzuleak justiziaren aurrera eramaten ahalegintzeko.

Gaiak

Estatu terrorismoa, zigorgabetasuna, justizia edo mendekua

Estatu terrorismoa. Film honek Estatuaren egituretatik zetozen aginduak betetzen zituzten pertsonen ETaren kontrako estrategiaren baitan egin zituzten giza eskubideen urraketak erakusten dizkigu.

Zigorgabetasuna. Krimen horren erantzuleak justiziaren aurrera eramateko zailtasunak oso handiak izan ziren eta, gainera, kartzela zigor luzeak ezarri zitzaizkien errudunak berehala atera ziren kalera, aske.

Justizia edo mendekua. Filmak justizia edo mendekua bilatu behar dugun eztabaidatzen laguntzen digu. Gainera, terrorismoaren kontrako borrokari eta Estatu krimenen erantzuleak justiziaren aurrera eramateari lotuta egiten du galdera hori.

Filma ikusi aurretik erantzuteko galderak

·Estatu terrorismoari buruz: Lasa eta Zabala kasua GALen lehenengo ekintzetako bat izan zen. Hala ere, aurrerago, sigla horiek oso ezagun bihurtu ziren. Zer dakizu GALi buruz?

·Zigorgabetasunari buruz: Zure ustez, tortura noizbait justifikatuta egon al daiteke?

·Justizia edo mendekuari buruz: Estatu terrorismoaren biktimen salaketa nagusietako bat da haiekin ez dela justiziarik egin. Zure ustez, giza eskubideen urraketa guztiak berdin balioesten al dira ala desberdin?

Filma ikusi ondoren erantzuteko galderak

·Filmean ikusten da inplikatuak batzuek, bereziki Rodríguez Galindo jeneralak, bere burua herrialdearen zerbitzari leialtzat duela. Zuk zer uste duzu? Horrelako ekintzek herrialdeari onik egiten al diote? Zein iritzi duzu arrazoi edo talde batekiko leialtasun itsua justizia nahiaren gainetik jartzearen aurrean? Horrelako leialtasunik sumatu al duzu zure inguruan?

·Filmak argi eta garbi erakusten du justiziak gertakarietan inplikatuakoei kartzela zigor luzeak jarri zizkiela baina kartzelan oso denbora gutxi eman zutela. Zure iritzi, zergatik gertatzen da hori? Zein eragin du horrek gizarte demokratiko batean? Kasu honetan, zer izango litzateke zuretzat justizia egitea?

·Ze sentimendu eragiten dizkizu torturaren irudiek? Nola ikusten dituzte torturatzaileek biktimak? Zure ustez, "gerra zikinak" balio al du, nolabait, ETak egin zuena justifikatzeko edo arintzeko?



LASA ETA ZABALA

baketik | 943-251005
www.baketik.org

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA